

“*Soneko duen alkandoraren lepoa eskuaz altxatu eta sudu
 berrira gerturatu du Mirenek, burua eskuin aldera
 eramanez. Oraindik Andresen usaina hartu dezake. Al
 kandora utzi eta esku biak bolanterara eramán ditu. Ebcera
 ko bidean doa. Bere begietan hiriak argien distira islatzen
 da baina Mirenek ez ditu haiek ikusten. Andresen ezpa-
 nen irudia baizak, eta haren aboaren zaporea den buru
 izango balu bezala, mingaina pasatu du ezpatekin.*”

elkar

Binakako, bakardadea, komunikazio-inkomunikazio
 arazoak, desiraren eta errealitatearen arteko amilde-
 gia... gaitz horietatik abiatu eta elikatu da Karmele. Hala
 hamabost istorio hauek idatzako. El asperen baten aze-
 an egon daitezkeen pentsamenduak hitzen bitartez iru-
 dikaruz, burutik pasatu baina esan gabe geratzen diren
 esaldiak azaleratuz.

Giza harremanen eremu labankorrean beroso baina ten-
 tuz mugitzen dala egileak pertsonen barrunbe ezku-
 ruetan arakatzeko, gure nahi eta ezinak begirada zoll
 bezain delikatuarekin agertzeko.

Ahots berri bat ateratzen da hemen, eskal nartaribaren
 plazara. Talentua, norrasuna eta sentiberatasuna era-
 kusten dituen ahotsa, urakurleen buru bihotzak un-
 trosten jakingo duena.

ISBN 84-9783-168-3




9 788497 831680



elkar

Hamabost zauri karmele jaio



MUNDUKO EMAKUME ZORIONTSUENA

Hegan doala sentitu du Jenniferrek, Antonioren gerriari lotuta eta motorraren gainean argiz betetzen ari den hiria zeharkatzen. Antonioren gorputzak haize bortitzetik babesten duela, begiak itxi ditu. Buruan, behin eta berriz entzuten ditu Antoniok motorrera igo baino lehen eman dizkion instrukzioak. "Ez duzu besterik egin behar -esan dio Antoniok-. Motorra martxan mantendu, besterik ez. Eta itxaron ni berriz bueltatu arte".

Motorra martxan mantendu. Ez du besterik egin behar. Itxaron. Motorra martxan mantentzearekin bakarrik, agur esango die azkenik auzo zaharrari, bata bestearen gainean eraikitako etxebizitzei, txikle zapalduz beteriko espaloiei.

Izter tartean motorraren dardara nabaritzen duela, Jenniferrek estu heltzen dio besoekin autoen argien artean gidatzen duen Antoniori. Haren sorbaldan jarri du bere buruaren pisua, eta eskuin aldera begiratzean alde batera eta bestera mugitzen diren argiak ikusi ditu. Bata bestearekin nahasten diren argiak, agertu, desagertu eta bat-batean berriz ere agertzen direnak. Burua Antonioren sorbaldan gehiago hondoratzean haren usaina hartu

du, eta sudurra jarri du haren kamisetaren gainean lur-
rin hori hobeto harrapatu ahal izateko, hiriko keak
Antonioren usaina zapaldu ez dezan.

Jeniferrek bizitza osoa pasatuko luke horrela. Anto-
nioren gerriari lotuta, orduko ia ehun kilometroko abia-
durak ematen dion indar sententzioaz mundua popatik
hartzera bidaliz. Popatik hartzera hezetasun orban bel-
tzez betetako paper margotua, izerdi eta janari usaina,
alboko gelatik entzuten diren oihuak, aitaren ahoak
duen alkohol kiratsa, amak ezkutuan egiten dituen ne-
garrak. Denak bidaltzen ditu popatik hartzera Jennife-
rrek Antoniorekin batera, motorraren gainean, hiria ze-
harkatzen duenean.

Haizea bere adats beltzean indarrez sartzen den une
horretan sentitzen da bakarrik zoriotsu Jennifer. Zo-
riontasun hori luzatzeko gauza bakarra egin beharko du
gaur gauetz, Antonio motorretik jaisten denean. Moto-
rra martxan mantendu. Besterik ez.

Hiriko etxeetako leihoretatik ateratzen diren argi
zuriak ikusten ditu, baina abiadurak ez dio bere begi-
radari bakar batean geratzen uzten, eta une batez bere
burua ikusi du etxe handi bateko egongelan, Antonio
eta bera bakarrik. Ez du auzokoen telebista entzuten, ez
du kalean sortu den liskarra entzuten, ez du sofan aurki-
tzen galtzontzilo hutsetan zigarto beltzak bata bestearen
atzetik erretzen dituen gizonik. Zuriz jantzita daude
biak, egongela argi hartan krema koloreko sofan eserita,
ortozik alfonbraren leuntasuna sentituz. Ez dago lurrean
tximurtutako tabako paketerik, ez dago jausitako kofia-

kak utzitako orbanik, ez dago telebista gainean bande-
rillaz jositako zezenik. Egin berria den kafearen usaina
dago.

Belarria Antonioren sorbaldan jarrita duela, Jenni-
ferrek honen bihotzaren taupadak entzuten ditu, gero
eta azkarrago, gero eta ozenago. Motorrak egiten duen
zarataren gainetik entzuten ditu taupadak. Hain gustu-
ko duen musika etorri zaio burura erritmo hura entzu-
tean, eta diskotekan elkar ezagutu zuten eguna gogora-
tu du. Lagun baten kotxe horitik jaisten ikusi zuen An-
tonio, eta ezin du ahaztu diskotekara sartu baino lehen
hark egin zion irribarrea.

Haizeak, ilea ez ezik, Jenniferren pentsamenduak ere
alde batetik bestera daramatza. Aurretik atzera eta atzetik
aurrera. Elkar ezagutu zuten egunetik aurrera salto egin
dio buruak eta Antoniorekin izango duen haurra ikusi
du etxe argitsu bateko alfonbra gainean jolasten. Haizeak
berriz eraman dizkio oroitzapenak iraganera eta Anto-
nioren bular biluzia lehen aldiz ukitu zuen eguna gogo-
ratu du. Hurrengo gasolindegia 500 metrora dagoela
adierazten duen seinaletik igarotzean berriz egin dio iru-
dimenak atzetik aurrera eta bere burua ikusi du arropa-
-denda batetik irteten, eskuetan hainbat poltsa dituela.

Motorraren dardara motelduz doa eta eskuin aldera
okertu dira, argi zuri indartsua duen gasolindegirako
bidean. Eskuin aldetik, gasolina hornigailuetatik igaro
gabe, eraikinaren atzeko aldera abiatu eta kotxeak gar-
bitzeko makinaren alboan gelditu dira, eraikinetik metro
batzuetara.

Motorretik jaitsi eta begietara begiratu dio Antonio. Ez dio ezer esan. Jenniferri iruditu zaio mutilak ezin dituela masailezurak mugitu, baina bera ere isilik geratu da eta, eskulekuari helduta, motorra martxan mantendu du.

Antonio bere begi bistatik desagertu denean, albo-ko eraikinera begiratu eta itzalpean dauden komunetako ateetara begira geratu da. Bi marrazki ikusi ditu. Emakumearena bata eta gizonarena bestea. Marrazki zuriak atzealde urdinaren gainean. Josita geratu zaizkio begiak bertara eta, halako batean, marrazki haiek elkarri eskua ematen ikusi ditu. Emakumeak jantzi zuri luze bat du soinean eta gizonak gorbata eta trajea. Elkarri musu ematean txaloak entzun dira eta, ondoren, ardo kopa batzuek topa egin dute. Une horretan bertan, koppek topa egin dutenean, kristal hotsa entzun eta bortizki atera da ametsetik Jennifer. Kristal hotsaren ondoren oihuak entzun ditu. Gasolindegiko eraikinaren beste aldetik datoz. Eta oihuen artean Antonioren ahotza ezagutu du.

Tripako mina. Antonio lehenbailehen bueltatzea baino ez du nahi Jenniferrek eta, bitartean, haren instrukzioak gogoratu ditu berriro. Motorra martxan mantentzeko agindua. Oihu gehiago entzun ditu eta, bat-batean, bere aurrean agertu da Antonio. Esku batekin odola darion besoari helduta eta bestean zerbait dakarrela. Poltsa bat da.

–Ez da ezer –esan du arnasestuka–. Hartu hau, gorde.

Zakarretarako erabiltzen den poltsa beltz bat eman dio eskura. Jenniferrek, ezer galdetu gabe, izter artean sartu du, eta Antonio –oraindik ere masailezurak mugitu ezin dituela– motorrera igo denean, honen gerriari heldu dio, lehen baino estuago eta indar gehiagorekin.

Motorrak berriz ere bere bidea hartu duenean, Antonioren sorbalda izerditsuan hondoratu du burua. Sorbaldan jarrita duen ezkerreko belarritik Antonioren taupadak entzun ditu, gero eta ozenago, gero eta indartusago, eta eskuineko belarritik sirena hotsak, gero eta gertuago.

Begiak itxi ditu eta une horretan munduko emakume zorientsuena dela sentitu du Jenniferrek.

